

# GURE IRAKURGELA

## AMODIOAREN HOTZ-BEROAK

**Manu Lopez Gaseni**

**R**. L. Stine idazle estatubatuarra “Hotzikarak” izeneko beldurrezko liburu bildumagatik egin zen ezaguna gure artean, eta nerabeentzako liburu mordoxka bat idatzi du izuaren generoan.

Elkar etxeak argitaratu berri duen “Hil ala bizi” eleberria ere genero horretakoa da, eta duela hamabi bat urte plazaratu zen ingelesez lehen aldiz. Protagonista Joana izeneko aberaskumea da, 16-17



**Liburua:** “Hil ala bizi”  
**Egilea:** R. L. Stine.  
**Itzultzailea:** Itziar Otegi.  
**Argitaletxea:** Elkar, 2007.

urtekoa, eta istorioa hasten den unean bere maila sozial berekoa ez den Dex mutil-laguna uzteko asmotan dabil, altuago eta aberatsagoa den beste batekin hasteko. Neskak nahi duen guztia du, eta hartu eta utzi egiten du bere gogara, axola handirik gabe. Horregatik ez zion axola izan, gaueko ateraldi batean, Dex labar batean behera amildu eta ustez hil zenean. Gehiegi kezkatu gabe, bizitzak aurrera egin behar zuela pentsatuko zuen, ustez hildakoa gero eta itxura baldarra-goan behin eta berriz agertu

ez balitzalio. Egia, gezur, itxura eta iruzurrezko sare handi batean harrapatuta ikusiko du bere burua Joanak, irtenbiderik gabe, eta horrek ordua artean izandako jokabideak zalantzetan jartzera eramango du. Bistan denez, izuak ere alegietakoen antzerako ondorio didaktiko-moralak ateratzeko balio dezake. Izuaren maisu baten lana izateko (gazteentzako Stephen King deitzen omen diote), ordea, istorioaren eralkuntza ez da sendoegia: narratzaile orojakileak batera eta bestera bideratzen ditu

irakurlearen uste eta inferentziak harik eta, eleberriaren bi herenetan, fantasiazkoa ez baizik eta generoko kontakizun errealista baten aurrean dagoela aitortzen dion arte. Hortik aurrerako korapiloek ez dute lortzen irakurlearen arreta erakartzea, eta narrazioa motelduz doa azken ikasbiderantz. Azpimarragarriena, nire aburuz, neska aberaskume totalaren karakterizazioa da.

Itzulpena zuzena da, bat dator liburuaren denbora-pasarako xedearekin, hizkera irakurterazean emana baita.